



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko martxoaren 19a

33. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- 11-24/PES-00502. Galdera, arnagailuak erosteko lizitazioaren zehaztapenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-25/PES-00503. Galdera, lagun egiteko animalien babes-zentroak kudeatzeko hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-25/PES-00504. Galdera, Nafarroako Gobernuak duen Animaliak Babesteko Zentroaren lizitazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-25/PES-00505. Galdera, Nafarroako Liburutegi Sarerako euskarazko bisita gidatuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-25/PES-00506. Galdera, Bardean artalde batek jasandako erasoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-25/PES-00507. Galdera, 2022an Nafarroan suak hartutako eremuen jarraipenari eta bilakaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-25/PES-00508. Galdera, Fustiñanako lurzati bateko lixibiatuen balizko iragazteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-25/PES-00509. Galdera, Nafarroako Kontseiluaren 15/2024 irizpenaren balorazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-25/PES-00510. Galdera, Nafarroako Kontseiluaren 15/2024 irizpena behin ezagututa egon litezkeen aldaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-25/PES-00511. Galdera, mugikortasun jasangarriko helburuen jarraipenerako nahitaezko txostenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-25/PES-00512. Galdera, Nafarroan proiektatuta edo tramitazioan dauden datu-zentroei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-25/PES-00513. Galdera, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legearen betetze mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-25/PES-00514. Galdera, metilfenidatoaren hornidura-ezaren arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).

- 11-25/PES-00515. Galdera, metilfenidatoaren hornidura-eza ekiditeko neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 11-25/PES-00516. Galdera, bi urteko geletako proba pilotuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00502. Galdera, arnasgailuak erosteko lizitazioaren zehaztapenei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak arnasgailuak erosteko lizitazioaren zehaztapenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko azaroaren 27ko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Lizarrako eta Tuterako osasun barrutietan eskuratutako garraio arnasgailuen beharrezko prestazioen inguruko PES-00433 galderari emandako erantzunaren harira (11-24/PES-00502). Hona hemen Nafarroako Gobernuo Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

nola liteke prestazio horiek lizitazioaren zehaztapenetan sartu ez izana?

PES-00433 galderan informazioa eskatzen zen eskuratutako arnasgailuek O-NOZen biltegitratuta daudenen aldean dituzten prestazio hobeen ingu-

ruan, eta ildo horretatik erantzun zen, ekipamendu biek dituzten alde tekniko nagusiak aztertuta.

Kontratua lizitatu baino lehen, teknikariek merkatuaren egoera ebaluatu zuten, eta une horretan askotariko hornitzaileek merkaturatzen zituzten ekipamenduen ezaugarriak, ereduak eta lizitzaile posibleak identifikatu zituzten. Egindako merkatu azterketa ikusita eta lizitazioaren diseinuaren ondorioz, oso argi geratzen zen biltegitratuta zeudenen pareko ekipamenduak eskaintzen zituen enpresa bat izaten ahal zena adjudikaziodun.

Ez ziren lizitazioko gutxieneko betekizun tekniko gisa sartu azkenean eskuratutako arnasgailuen prestazioak lizitazio irekia egin nahi baitzen, aukera emateko hainbat lizitzaileari askotariko ezaugarri eta prestazioetako hainbat eskaintzarekin lehiatu ahal izateko, eta, behin aurkeztutako askotariko eskaintzak ebaluatu ostean, globalean kalitate-prezio harreman onena zuena aukeratu nahi zen ezarritako adjudikazio irizpideen arabera.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 19an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00503. Galdera, lagun egiteko animalien babes-zentroak kudeatzeko hitzarmenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak lagun egiteko animalien babes-zentroak kudeatzeko hitzarmenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 13ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00503), jakiteko ea Nafarroako Gobernuak hitzarmen komun bat aurreikusita duen CPAGN, CAAAP eta CCPAMR-ren lagun egiteko animalien babes-zentroak kudeatzeko. Hona hemen Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Abandonatutako nahiz galdutako lagun egiteko animaliak jasotzea eta mantentzea toki entitateen eskumen eskusiboa da. Hauxe jasotzen du Lagun Egiteko Animaliak Nafarroan Babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legeak:

15. artikulua. Animalia abandonatu eta desagertuak.

1. Honakoak dagozkie udalei, udalez gaindiko entitateei eta eskualdeei:

a) Beren udal barrutian dauden animalia abandonatu edo galduak jasotzea, eta haien animalien harrerarako zentroetan sartzea. Horretarako, animaliak jasotzeko zerbitzu iraunkor bat edukiko dute, propioa, mankomunatu zein itundua.

b) Animalien harrerarako zentroak edukitzea, edo harrera-zerbitzua ituntzea Foru Komunitateko Administrazioarekin, beste toki entitate batzuekin, animalien babeserako eta defentsarako elkarteekin edo horretan diharduten beste pertsona juridiko edo fisiko batzuekin.

22. artikulua. Eskumenak eta kontrolak.

1. Udalek, udalez gaindiko entitateek eta eskualdeek honako hauek egin beharko dituzte:

a) Abandonatutako edo desagertutako animaliak jaso, ostatatu eta mantentzeko jarduerak, bai eta katu-kolonien kudeaketa ere. Eskumen hori baliatuta, Nafarroako Gobernuarekin lankidetzaren mekanismoak ezarri ahalko dituzte, edo itunak egin ahalko dituzte animaliak babestu eta defendatzeko elkarteekin edo horretarako baimena duten beste pertsona fisiko edo juridiko batzuekin.

Gaur egun, aipatutako zentroak daude funtzionamenduan; bata Iruñeko Udalaren titulartasuneko da, beste bat Erriberako Mankomunitatearena eta hirugarren bat Nafarroako Gobernuarena.

Azken hori 1993. urtean sortu zuen Osasun Publikoak, hidatidosiaren gaixotasuna kudeatzeko xedez. Zentroa sortu zen Animalien Babesari buruzko maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legea argitaratu eta indarrean sartu aurretik. Arau horrek lehen aldiz jaso zuen animalia abandonatuak eta galduak babesteko zentroak izateko derrigortasuna, eta horretarako eskumena esleitu zien toki entitateei. Nafarroako Gobernuaren Zentroa sortzean asmoa ez zen animalia abandonatuen eta galduen kudeaketa egitea, baizik eta txakurrek zuten gaixotasun zehatz bat tratatzea eta desageraraztea soilik.

Hala ere, behin gaixotasuna kontrolatu ondoren, animalia abandonatuak jasotzeko toki titulartasuneko zentro publikorik ez zegoenez, mantendu behar izan zen gabezia horri aurre egiteko.

Nafarroako Gobernuak lagun egiteko animalia abandonatuen eta galduen zentroen inguruan dituen eskumenak dira, soil-soilik, sortzen diren zentroak baimentzea eta erregistratzea, bat etorritik ezarritako prozedurarekin (une honetan prozedura hori jasota dago 19/2019 Foru Legea garatzeko erregelamendua onesten duen urriaren 26ko 94/2022 Foru Dekretuan), bai eta zentro horiei kontrolak eta ikuskapenak egitea ere (19/2019 Foru Legearen 22. artikulua).

Halaber, eta Nafarroako Gobernuak kudeatzeko esleitzen zaizkion gaitan koordinatzeko, lankidetzan aritzeko eta laguntzeko dituen eskumen generikoen arabera, udalekin lankidetzan aritu behar da eta beharrezko aholkularitza eta informazioa eman behar dizkie haien eskumenak egikaritzeko gai izan daitezen.

Azaldutako arrazoiengatik, eta lagun egiteko animalien zentroak kudeatzea ez denez Nafarroa-

ko Gobernuaren eskumena, Etxaurin kokatutako Animaliak Babesteko Zentroak indarrean jarraitzen duenez, Nafarroako zentro gabeziako egoera ez gaizkiagotzeko, ez da babesteko zentroak kudeatzeko hitzarmen komunik egin behar; halaber, horrek ez ditu ezertan galarazi behar Iruñeko Udalak eta Erriberako Mankomunitateak ildo horretan hartzen ahal dituzten erabakiak.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 27an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00504. Galdera, Nafarroako Gobernuak duen Animaliak Babesteko Zentroaren lizitazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak Nafarroako Gobernuak duen Animaliak Babesteko Zentroaren lizitazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 13ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-24/PES-00504 galdera idatzia egin du, Animaliak Babesteko Zentroaren kudeaketaren mugaeguna, esleipenaren lizitazioan jasotzen ziren gehieneko luzapenak barne, 2024ko abenduaren 31n denez gero. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

1.- Zenbat txakur ditu une honetan harrera-zentroak?

Une honetan zentroa % 100ean dago okupatuta, eta, zehazki, 69 txakur ditu.

2.- Baldin eta Nafarroako Gobernuak kontratua ez lizitatzea erabakitzen badu, zer eginen da zentroan gaur egun dauden animaliekin?

CPAGN kudeatzeko kontratuaren lizitazio berria laster argitaratuko da, behin amaitu ostean kontratazio publikoko batek eskatzen dituen barne izapideak.

3.- Animaliarik onartzen ari al dira gaur egun?

Jarraitzen da txakur abandonatuak, konfiskatuak eta atzemandakoak mantentzeko espazio egokiak edo behar adinakoak ez dituzten toki entitateek egiten dituzten eskaerak artatzen.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 27an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00505. Galdera, Nafarroako Liburutegi Sarerako euskarazko bisita gidatuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Oihan Mendo Goñi jaunak Nafarroako Liburutegi Sarerako euskarazko bisita gidatuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 13ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak 11-24/PES-00505 galdera idatzia egin du jakiteko sare publikoko zenbat liburutegik dituzten euskarazko hizkuntza-eskakizuna duten langileak jardunean, eta zenbatek

egiten dituzten ikastetxeendako bisita gidatuak euskaraz. Hona hemen Nafarroako Gobernuako Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Lehenik eta behin, galderaren hasieran hauxe esaten da: “Nafarroako liburutegi publikoen sareak, zeina (...) 83 liburutegik osatzen baitute”. Bada, bertan dagoen datu bat eguneratu behar da.

Gaur egun, Liburutegi Publikoen Sarea Foru Komunitateko lurralde osoan zehar banatutako 100 liburutegik osatzen dute. Horietatik 76 Nafarroako Gobernuaren langileek kudeatzen dituzte, eta 24, berriz, udalek kontratatutako langileek.

Langileen euskarazko hizkuntza eskakizunari dagokionez, plantillan eskakizun hori duten plazen inguruan soilik informatzen ahal dugu:

LIBURUTEGIA	PLAZA	HIZKUNTZA ESKAKIZUNA
Altsasu	33623	C1
Altsasu	36780	C1
Aurizberri	32009	C1
Baztan	32787	C1
Etxarri Aranatz	36085	C1
Irurtzun	30415	C1
Leitza	32123	C1
Olatzagutia	30080	C1
PNA-Nafarroako Liburutegia	32882	C1
PNA-San Francisco	10335	C1

Berako eta Lesakako Liburutegiak eremu euskaldunekoak dira, eta, une honetan, ez dute zehaztuta C1 hizkuntza-eskakizunaren betekizuna. Betekizun hori ezarri zenean bi liburutegiak zeuden hori eragozten zuen oposizio-lehiaketa batean murgilduta 2015etik. Behin ebatzi ondoren, Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuko Hizkuntza Planak jasotzen dituen postuak zehaztearen zain gaude egoera hori zuzentzeko.

Orokorrean, badaukagu “euskara mailari” buruzko informazioa, “Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarean zerbitzuak ematen dituzten langileen egoerari buruzko 2023ko azterlanean” jaso-

tzen denaren arabera. Espainiako Artxibistika, Bibliotekonomia, Dokumentazio eta Museistika Elkartearen Federazioak (FESABID) egin zuen azterlan hori, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren enkarguz.

9.1.3. Euskara maila (42-43 orrialdeak)

<https://www.culturana Navarra.es/imagenes/documentos/estudio-sobre-la-situacion-del-personal-que-presta-sus-servicios-en-la-red-de-bibliotecas-publicas-de-navarra-475-es.pdf?t=20241211154308>

Ikastetxeek euskaraz bisita gidatuak egitearen inguruan, adierazten diren datuak dira eskura dauz-

kagunak. Hala ere, badakigu datu gehiago daudela, liburutegiek ez baitigute beti helarazten egiten dituzten jardueren informazioa, eta, kasu batzuetan, ez dute zehazten zer hizkuntzatan egin den.

Ikastetxeen bisitak 2024an:

Gaztelania	198
Euskara	46
Zehaztu gabea	23

Adierazi behar da, halaber, ikastetxeen euskarazko bisita horiek sare osoko liburutegietan egiten direla, ez soilik eremu euskaldunean, eta liburuzainek bisita horiek egiteko beharrezko hizkuntza ezagutza nahikorik ez dutenean gai diren langileak kontratatzen ditugu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 31n

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-25/PES-00506. Galdera, Bardean artalde batek jasandako erasoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak Bardean artalde batek jasandako erasoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 13ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-24/PES-00506 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, artalde batek Bardean azken egunotan jasan duen erasoari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Departamentuak zer egin du eraso hori ikusita?

Erasoaren egunean bertan, Tuterako barrutiko Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldeak ukitutako abeltzainari jakinarazi zion Nafarroako Gobernuak artzain elektrikoak zituela, eta lagatzen ahal zituela saihesteko haragijalea abereengana hurbil dadila. Instalatzeko eskaintza ere egin zitzaion.

Hurrengo egunean, Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldeak behar adinako altuerako itxitura elektrikoa instalatu zuen ukitutako abeltzainak

jadanik zuenaren inguruan, eta artaldea itxitura perimetral bikoitzarekin babestuta geratu zen.

Horrez gain, Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldeak lau kamera jarri zituen (egunean bertan bi eta hurrengo egunetan beste bi) eta zenbait itxaronaldi egin zituen erasotzailea detektatzeko aldera.

Geroago, eta kasuko albaitaritza analisisa egin ondoren, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak erabaki du seguruenik otso bat egin zuela eraso; beraz, artaldean sortutako kalteei dagokien kalte-ordaina izapidetzen ari da, indarrean dagoen araudiak ezartzen duenaren arabera.

2. Ba al daukazue erasoak egin zituen animalia identifikatzeko hondakin genetikoaren analisiaren emaitzarik?

Abenduaren 16an, Bartzelonako Unibertsitate Autonomikoaren Albaitaritza Fakultateko Genetika Molekularraren Albaitaritza Zerbitzuak egindako proben egiaztagiria bidali zigun.

Alabaina, zenbait analisi egin ondoren, ez zen lortu behar adina DNA ateratzea erabaki ahal izateko zein den eraso egin zuen espeziea. Emaitza horren arrazoia da hozkadetako listu arrastoe-tan DNA lortzeak berez zailtasun handia duela, eta gorozkien lagina zaharregia zela.

3. Bertako nekazarien sektoreari informatu al diozue departamentuak zer neurri hartuko duen eta halakoetan nola jokatu behar duten? Komunikazio hori nola egin da?

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak Errege Bardeako Batzarrari eta inguruko abeltzainei jakinarazi die, azken horiei Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldearen bidez, Nafarroako Gobernuak itxitura elektrikoak jarriko dizkiela eraso gehiago egonez gero eskatzen duten abeltzainei.

Horrez gainera, abenduaren 16an aurrez aurreko bilera bat egin zen Tuteran ukitutako abeltzainaren eta Zuzendaritza Nagusiaren artean, erasoari, emaitza genetikoei eta kaltetutako abereengatik jaso beharreko kalte-ordainari buruz hitz egiteko, bai eta kalte horiek saihesteko hartzen ahal diren neurriei buruz ere.

Halaber, 2025ean beste deialdi bat egingen da abeltzaintza estentsibo hori eta harrapakari han-

diak batera existitzen laguntzeko nekazaritza eta ingurumen neurrirako, NPB 23-27ko Plan Estrategikoaren bitartez, hobekuntza ekonomikoak eta prestazioetakoak sartuta 2024ko deialdiari dago-kionez.

Deialdi berri horrekin batera, aurreikusten da nekazaritza eta ingurumen neurri horren zabalkunde kanpaina egitea inguruko abeltzainei, informata egin daitezen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 7an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00507. Galdera, 2022an Nafarroan suak hartutako eremuen jarraipenari eta bilakaerari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak 2022an Nafarroan suak hartutako eremuen jarraipenari eta bilakaerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 13ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-24/PES-00507 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, 2022an Nafarroan su hartutako zonen jarraipenari eta bilakaerari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Biodibertsitatearen eta Arrantza Kudeaketaren Zerbitzuak honako informazio hau eman du:

1. Su hartutako zonetan egindako jarraipenak

Nafarroan, barnean hartuta 2022 suteen eraginpeko zonak, fauna katalogatuaren honako jarraipen hauek egin dira:

- Sai zuriaren zentsua (*Neophron percnopterus*). 2023. urtea
- Arrano beltzaren zentsua (*Aquila chrysaetos*). 2023. urtea
- Belatz handiaren zentsua (*Falco peregrinus*). 2023. urtea
- Sai arrearen zentsua (*Gyps fulvus*). 2024. urtea
- Gaueko tximeleten zentsua. 2022. eta 2023. urteak
- Miru gorriaren zentsua (*Milvus milvus*), ugaltzailea eta negutarra. Negutarraren zentsua urte guztietan egin da (2023 eta 2024. urteak), eta ugaltzailearena 2024. urtean.

2. Fauna nola garatzen ari da eremu haietan? Eta aipatu eremuak leheneratzeko ezer berezirik egitea planteatzen ari da?

Egindako zentsu guztietan egiaztatu da ukitutako zonetako populazioa egonkor mantendu dela sutea izan baino lehen zegoen populazioaren aldean.

Erreniegan egindako gaueko tximeleten zentsuan egiaztatu da inguruan dauden espezieak aldatu direla, sutearen ostean landareetan izandako aldaketaren ondorioz (basoa izatetik sastraka-

dia izatera pasa da); hala ere, ez da ikusi aldaketa horrek espezie mehatxatuei eragin dienik.

Momentuz, ez da planteatzen leheneratzeko jarduketa berezirik egitea egindako zentsuetako emaitzak ikusita, baina ez da baztertzeko nahiz eta eraginak jasan egindako jarraipenetan detektatu ez diren espezieak egoten ahal direla. Etorkizuneko azterlanetan espezie basatien populazioei eragiten dieten afektazioak identifikatu gero, hartu beharrezko neurriak zehaztuko dira.

Basoen eta Ehizaren Zerbitzuak honako informazio hau eman du:

1. 2022. urtean zehar guztira 360 baso-sute izan ziren Nafarroan, eta 16.474 hektareatan izan zuten eragina. Horietatik, 14.854 ha ukituak izan ziren bederatzi sutetan, 2022ko ekainean zehar. Azalera horretako % 80 baso lurrak ziren, eta gainerako % 20, berriz, nekazaritza lurrak.

2022ko suteen gertakari horietan ukitutako baso zalera horiek laburbiltzen dituen taula erantsi da.

Principales incendios forestales. Datos de superficie y características de los terrenos afectados.

FECHA	LUGAR DEL INCENDIO	SUPERFICIE TOTAL (ha)	TIPO DE SUPERFICIE					
			AGRÍCOLA (ha)	%	FORESTAL (ha)	%	INFRAESTRUCT. Y OTROS (ha)	%
15 JUNIO	Tafalla	263,9	153	58	86,5	33	24,5	9
	Iratxeta	124,1	2,8	2	121,2	98	0,1	0
	Olleta	6,3	0	0	6,3	0	0	0
	Sierra de Leyre	299,5	0	0	299,5	100	0	0
18 JUNIO	Valtierra-Arguedas	2.131,4	225,8	11	1.831,7	86	73,9	0
	San Martín de Unx -Lerga Estava-Gallipienzo	6.595,7	706,6	11	5.809,5	88	79,6	1
	Legarda-Puente La Reina Sierra Perdón	4.797,9	1.820,3	38	2.868,8	60	108,9	2
25 JULIO	Carcastillo	341,1	233,8	69	93,9	28	13,4	4

Oharra: Taula horretan gehitzea falta da 2022ko ekainaren 18an Villamayor de Monjardín, Lukin, Barbarin eta Los Arcos udalerrietan eragina izan zuen sutea, guztira 294 hektareatan izan zuena eragina. Horien % 61 nekazaritzakoak ziren, % 33 basokoak eta gainerako % 6 azpiegiturak eta bestelakoak.

2. Sutearen ostean egindako lehenbiziko jarduketa izan zen suteak benetan ukitutako azalera aztertzea, eta afektazioa hainbat kategoriatan sailkatu zen, udalerriarren, titulartasunaren eta landare motaren arabera; izan ere, sutearen aurkako erantzuna hein handi batean baso espezieen eta horiek suteari egokitzeko duten gaitasun naturalaren arabera da. Txostenak eta kartografia egin ziren sute bakoitzerako.

3. Bigarren jarduketa erretako zura ateratzearen ingurukoa izan da. Zehaztu zen askotariko arazoak direla-eta zer baso-masatan jotzen zen egokitzat zeuden zuhaitzak guztiz edo partzialki moztea, izan izurrite eta gaixotasun arriskua murrizteko, ondorengo lehengoratzeko naturala errazteko edota saihesteko, ahal den heinean, zurak balioa galdu dezala jabeentzako, jabe partikularrentzako eta, gehienbat, Nafarroako toki entitateentzako.

Erretako zura ateratzeko lanen egoera erantsi da aurreko taulako suteetako bakoitzari dagokionez.

- Tafallako sutea

Tafallako Udalaren herri lurretan Alepo pinuaren zur errearen 61 hektareako baso aprobetxamendua

amaitu da, zenbatespena izanik 2.886 m3 atera direla.

- Iratxetako sutea

Iratxetako Kontzejuaren herri lurretan larizio pinuaren 90 hektarea moztu dira, zenbatespena izanik 10.883 metro kubo atera direla.

Hiriberriko jaurrean (lursail partikularra) larizio pinuaren zur errearen 44,5 hektarea moztu dira, zenbatespena izanik 1.600 metro kubo atera direla.

- Oletako sutea

Azalera txikia denez gero, oraindik ez da baso aprobetxamendurik egin.

- Leireko Mendietako sutea

Irunberriko Udalaren herri lurretan larizio pinuaren zur errearen 57 hektareako baso aprobetxamendua amaitu da, zenbatespena izanik 1.990 metro kubo atera direla.

- Valtierra eta Arguedasko sutea

Baso aprobetxamendua Alepo pinuaren 220 hektareatan, zenbatespena izanik guztira 7.046 m3, % 80an osatuta. Aprobetxamendua egin den

gainerako eremua, eta sute horretan Alepo pinuak ukitutako gainerako azalera ere bai, aprobetxatu ezin daitezkeen eta iristeko zailak diren eremuak dira, edota garapen gutxiko zuhaitzak dituztenak eta baso aprobetxamendua egiteko modukoak ez direnak.

- San Martin Unx, Lerga, Eslaba eta Galipentzuko sutea

Lergako Udalaren herri lurretan larizio pinuaren 97,5 hektarea moztu dira, zenbatespena izanik 15.082 metro kubo atera direla.

Eslabako Udalean larizio pinuaren 127,5 hektarea moztu dira, zenbatespena izanik 13.067 metro kubo atera direla.

San Martin Unxeko Udalaren herri lurretan larizio pinuaren 82 hektarea moztu dira, zenbatespena izanik 4.315 metro kubo atera direla, eta martxan da aipatutako Alepo pinuaren aprobetxamendua, zenbatespena izanik 21.819 metro kubo atera direla.

Galipentzuko Udalean larizio pinuaren 130 hektarea moztu dira, zenbatespena izanik 14.400 metro kubo atera direla.

- Legarda, Gares eta Erreniegako sutea

Garesko herri lurretan koniferoen 267,5 hektareako baso aprobetxamendua egiteko baimena eman zen, gaur egun amaitua. Sarriako finka partikularrean ia guztia dago amaituta, baina zati txiki bat geratzen da zutik. Bodegas Sarria finka partikularrean erretako eremua osorik aprobetxatu da.

Argiñarizko herri lurretan (Girgillao) erretako pinudien 58 hektareako baso-aprobetxamendua amaitu da. Etxaren Girgillaon (Girgillao) pinuaren 16,7 hektareako aprobetxamendua amaitu da. Gesalaten ere amaitu da larizio pinuaren aprobetxamendua. Alepo pinuaren 33 hektareako aprobetxamendua dago egiteke, enpresa adjudikaziudunari adjudikatu ostean atzera egin ondoren, balio gutxi baitu. Jaitzen larizio pinuaren 22,1 hektareako baso aprobetxamendua amaitu dute.

Obanosen, sute horren eta 2023an izandako beste baten artean, larizio pinuaren eta Alepo pinuaren koniferoen masa (42 ha) guztiak erre dira. Herri-lurretako aprobetxamendua 2024 maiatzean amaitu zen eta azalera osoa moztu zen. Ukitutako zenbait jabe partikularrek, larizio pinudun eta Alepo pinudun mendiekin ere bai, masak moztu zituzten, guztira 14,41 hektarea eta 188,3 metro kubo.

Legardan suteak udalerraren % 75 baino gehiagori eragin zion, antzeko proportzioetan mediterraneoko Quercus generoko masetan, mediterraneoko sastrakadietan eta birpopulaketa-

ko pinudietan. Larizio pinuaren herri-lurretako aprobetxamendua 2023ko abenduan amaitu zen, guztira 3.500 metro kuboko bolumena aterata. Aprobetxamendu partikular batzuk ere egin ziren 31,5 hektareatan, eta zenbatesten da larizio pinuaren zuraren 1.400 metro kubo atera zirela.

Zizurren su hartutako azalera gehiena Undioko Kontzejuarena da, eta, hein askoz txikiagoan. Zizur Txikiko Kontzejuarena. Undioko Kontzejuko larizio pinuaren herri lurretako aprobetxamendua, 116 hektareakoa, 2024ko apirilean amaitu da. Halaber, baimena eman zen Zizur Txikiko Kontzejuan larizio pinuaren beste aprobetxamendu bat egiteko, 228 metro kubokoa, 2,4 hektareako azalera batean, 2024ko ekainean amaitua.

Beraskoainen suteak mediterraneoko Quercus generoko masi eragin zien batez ere, erretako azaleraren ia % 60. Erretako azaleraren beste % 35ek Pinus nigrako pinudiak zituen. 7.000 metro kubo baino zertxobait gehiago atera zen herri lurren 43,63 hektareatan. 2023ko irailean amaitu zen. Badago lursail partikularren bat non moztu gabeko zurik dagoen oraindik.

Zabaltzan erretako azaleraren % 7 baino ez dira pinudi produktiboak. Larizio pinuaren 20,86 hektareako aprobetxamendu bat egin zen Arraitzako Kontzejuan, ukitutako kontzeju handiena zenean. 2023ko irailean amaitu zen eta 3.000 metro kubo zur moztu ziren. Horrez gain, jabe partikular batek mozketa bat eskatu zuen, arte eta erkametzeko 0,40 hektareatan. 0,80 metro kubo egur atera ziren.

- Zarrakasteluko sutea

Oraindik ez da erretako zura atera. Toki entitateak baimena dauka baso aprobetxamendua egiteko, baina askotariko arrazoiengatik oraindik ez da lizitatu. Baimen puntuala eman da laborantza zonetan eragozpenak sortzen dituzten zuhaitz erreak kentzeko.

- Villamayor de Monjardín, Barbarin eta Los Arcosko sutea

Ukitutako zuhaitz-masen –Alepo pinua (33,65 ha), larizio pinua (0,54 ha) eta altzifrea (1,4 ha)– aprobetxamendua ia amaituta dago, eta guztira 2.136 m³-ko aprobetxamendua egin da. Mozketa amaitu da eta hondakin-zura zamalekuetara eramatea baino ez da falta.

4. Hirugarren jarduketa, erretako zura atertzeko lanak egin eta sute bakoitzaren egoera analizatu ondoren, martxan da eta zerikusia dauka su hartutako eremuaren baso lehengoratzearen plangintzarekin, egokitzen jotzen bada hori egitea.

Bat etorri Nafarroako Oihan-ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legean ezarritakoarekin, baso administrazioari dagokio baso-suteek ukitutako baso-aberastasuna lehengoratzeari eta prebentzio-neurriak gauzatzea. Neurri horien artean egoten ahalko da landaketarik berriz ez egitea suteen aurretik zuhaitz-espeziez estalita zeuden baso-lur eta mendietan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ezertan galarazi gabe, baso administrazioak diruz laguntzen ahalko ditu titularrek berek egiten dituzten lehengoratzeari eta prebentzio-lanak, administrazioak ezarritako irizpideen arabera.

Jarraian labur-labur azaltzen da berroneratzearen egoeraren analisia deskribatutako suteetako bakoitzerako, baso lehengoratzeari planifikatu aurreko abiapuntu gisa.

- Tafallako sutea

Berroneratze naturala lortu da nola Alepo pinuaren pinudian hala artadi, sastrakadi eta larreetan. Espero zen moduan berreskuratu dira. Ez da beharrezkotzat jotzen landatze osagarriarik egitea.

- Iratxetako sutea

Berroneratze naturala lortu da, artadiak, erka-meztiak, sastrakadiak eta larreak berragertu baitira. Ez da beharrezkotzat jotzen landatze osagarriarik egitea. Pinudiko zuhaitz zonei dagokienez, larizio pinukoak direnez, ez da ikusi hori berroneratu denik, zonako espezie autoktonoak baizik. Baloratzen da zona horietako batzuetan landatzea. Alderdi hori zehaztasun gehiagoz analizatuko da epigrafe honetako aurreragoko apartatueta.

- Oletako sutea

Berroneratze naturala lortu da, erkameztiak berragertu baitira. Ez da berroneratzerik egon ukitutako larizio pinuaren plantazioan. Bertan ez da zura oraindik atera: beraz, birpopulazio posibleak zur hori atera enean analizatuko dira.

- Leireko Mendietako sutea

Berroneratze naturala lortu da, artadiak, abariztiak, gainerako sastrakadiak eta larreak berragertu baitira. Ez da beharrezkotzat jotzen landatze osagarriarik egitea. Pinudiko zuhaitz zonei dagokienez, larizio pinukoak direnez, ez da ikusi hori berroneratu denik, zonako espezie autoktonoak baizik. Erretako eta moztutako pinudietan ez zegoen gutxienezko kalitaterik, landareek bilakaera positiboa izan dute; hortaz, lehenengo balorazioan, jotzen da eremua berroneratze naturalaren mende utzi behar dela, eta lurraldea erabiltzeko beste sustapen balio batzuen alde egin, hala nola abeltzaintza estentsiboa.

- Valtierra eta Arguedasko sutea

Berroneratze natural ona larre eta sastraka masetan. Alepo pinuaren pinudietan egiaztatu da lehengo pinudiaren aldean % 96,8an berroneratu dela. Lehengoratzeari lanak berroneratze naturalik izan ez duen azaleraren ehuneko txikian zentratuko dira, bai eta paisaiari lotutako jarduketak ere, zutik jarraitzen duten, ateratzen oso zailak diren eta lortutako produktua balio komertzial txikikoa duten zuhaitzak kentzekoak.

- San Martin Unx, Lerga, Eslaba eta Galipentzuko sutea

Berroneratze naturala lortu da, artadiak, erkameztiak, sastrakadiak eta larreak berragertu baitira. Ez da beharrezkotzat jotzen landatze osagarriarik egitea. Espero zenarekin bat, abariztia indarrez berragertu da, eta abereak maneiatzearen bidez kudeatzen saiatzen ari da.

Pinudiko zuhaitz zonei dagokienez, larizio pinudun zonetan, ez da ikusi hori berroneratu denik, zonako espezie autoktonoak baizik. Baloratzen da zona horietako batzuetan landatzea. Alderdi hori zehaztasun gehiagoz analizatuko da epigrafe honetako aurreragoko apartatueta.

Alepo pinudun zonetan ikusi da berorren berroneratze natural handia egon dela. Zona batzuetan hain dira handiak dentsitatea eta indarra, non abereen bidez saiatiu baita kontrolatzen lehenbiziko faseetatik, berriz ere murrizteko inguruaren erregai karga.

- Legarda, Gares eta Erreniegako sutea

Berroneratze naturala lortu da, artadiak, erkameztiak, sastrakadiak eta larreak berragertu baitira. Ez da beharrezkotzat jotzen landatze osagarriarik egitea. Alepo pinudun zonetan ikusi da berorren berroneratze natural handia egon dela. Pinudiko zuhaitz zonei dagokienez, larizio pinudun zonetan, ez da ikusi hori berroneratu denik. Alderdi hori zehaztasun gehiagoz analizatuko da epigrafe honetako aurreragoko apartatueta.

- Zarrakasteluko sutea

Berroneratze handia egon da erretako eremuan, zuhaitzak dauden baso azaleraren % 75 inguru.

- Villamayor de Monjardín, Barbarin eta Los Arcosko sutea

Alepo pinuak berroneratzeko gaitasun handia erakutsi du sutearekiko egokitzapen naturalei esker. Mediterraneoko landareek ere izan dute berroneratze eraginkorra egokitzeko dituzten mekanismoei esker. Egoera berdintsua da ukitutako

masak pinu espezie horretaz osatuta zeuden beste sute batzuetan deskribatutakoaren aldean. Ez da beharrezkotzat jotzen birpopulazio artifizialak egitea.

Aurrez azaldu denarekin bat suteek larizio pinuaren pinudi masei eragin zieten zonetarako, Baso Administrazioak 2024ko otsailan ofizio bat bidali zien suteak ukitutako eta ondoren arrasean moztutako larizio pinuaren azalerak dituzten herribasoen jabe diren toki entitateei. Horren bidez eskatzen zen berroneratze/basoberritze proiektuak aurkezitazela, % 100ean finantzatzen ahal direnak Nafarroako Aurrekontu Orokorren esparruan zein beste finantzaketa iturri batzuen bidez, bat etorri aipatutako ofizioan ezarritako lehentasun ordenarekin.

Proiektuak aurkezteko epea 2024ko uztailaren 31n amaitzen zen. Ondoren, 2024ko irailaren 16ra arteko luzapena eman zen.

Proiektuak aurkezteko epea amaitutakoan, honako toki entitate hauek aurkeztu dute masa horiek basoberritzeko eskaera:

- San Martin Unx, Lerga, Eslaba eta Galipentzuko sutea

- Eslaba: Eslabako (Nafarroa) Basoberritze Proiektua. 32,89 ha.

- Galipentzu: Galipentzuko herri-basoan basoberritzeko proiektua. 55 ha.

- Lerga. 2022. urtean Lerga udal-mugarterako sutean erretako pinudien basoberritzea. 38,13 ha

- San Martin Unx. 2022. urtean San Martin Unx udal-mugarterako sutean erretako pinudien basoberritzea. 42 ha.

- Iratxetako Kontzejua. Iratxetako sutearen ondorengo basoberritze proiektua. 15 ha.

- Legarda, Gares eta Erreniegako sutea

- Jaitz eta Gesalatz: 27,04 ha, horietatik 22,52 ha Jaitzenak izanik eta 4,52 Gesalatzak, Esparaz mendian kokatuta.

- Gares: Basoberritzeko lehenbiziko jarduketa. 53,7 ha. Azpimarratu behar da ezen, parte hartzeko prozesu baten esparruan Garesko Udalak Garesko mendi publikoetan suteak prebenitzeko eta berroneratzeko plan bat diseinatu duela, nola su hartutako eremua berroneratzeko hala mendian egiten diren eta planteatzen ahal diren askotariko erabilerak bateragarri egiteko.

- Girgillao (Argiñaritz): Argiñaritzko basoberritze proiektua. 15,62 ha

- Undioko Kontzejua: 2022ko sutearen osteko basoberritze proiektua, Undioko herri-basoan egitekoa, 55 ha.

- Obanos: 2022 eta 2023ko suteen osteko basoberritze proiektua Obanosko herri-basoan. 15,29 ha.

Une honetan, aurkeztutako dokumentazioa analizatzen ari da eskaerak barematze aldera eta ezartze aldera, aurrekontu erabilgarriaren arabera, proiektu horien lehentasun ordena eta egikaritzeko aurreikusitako urtea.

Bestalde, apartatu honen hasieran adierazi denez, foru legeek aukera ematen dute lurren jabeek berroneratze lanak egin ditzaten, izan laguntzen askotariko kanpainen bidez izan beste finantzaketa-iturri batzuk erabiliz. Edozelan ere, Baso Administrazioak eman behar die baimena proiektuei.

Orain arte, Baso Administrazioaren baimena dute jarraian azaltzen diren basoberritze proiektuek. Batzuk proiektu fasean daude, beste batzuk exekuzio fasean eta beste batzuk jadanik amaitu dira.

- Valtierra eta Arguedasko sutea

- Valtierra:

- Valtierra udal-mugarterako basoko jarduketak egiteko proiektua (basoberritzeko 11,84 ha eta soiltzeko 16,32 ha); Baimenduta. Ez da laguntzarik eman Basolanetarako Laguntzen 2024-2025 kanpainen aurrekontuan dirurik ez egoteagatik. Kanpoko finantzaketa eskuratzeko aukera baloratzen ari da.

- Valtierran su hartutako eremuak berreskuratzeko proiektua (basoberritzeko 10,42 ha). Baimenduta. Beste eragile batzuek diruz lagunduta (EDER).

- Arguedas:

- Valtierra udal-mugarterako basoko jarduketak egiteko proiektua (basoberritzeko 11,84 ha eta soiltzeko 16,32 ha); Baimenduta. Ez da laguntzarik eman Basolanetarako Laguntzen 2024-2025 kanpainen aurrekontuan dirurik ez egoteagatik. Kanpoko finantzaketa eskuratzeko aukera baloratzen ari da.

- San Martin Unx, Lerga, Eslaba eta Galipentzuko sutea

- Hiriberriko jaurerriko finka partikularrean 10,5 hektareako gutizko azaleran baso-sutearen ostean basoberritzeko proiektua. Kanpoko finantzaketa-iturriekin egin da.

- Legarda, Gares eta Erreniegako sutea

- Legarda: Legardako birpopulazio proiektua 2024-2025. 22,28 ha. Baimenduta. Aurreikusten da kanpoko finantzaketarekin egitea.

- Sarriako finka partikularra (Gares). Baimena eman zen eta jadanik amaitu da 5,64 hektareako birpopulazioa, diruz lagundua Basolanetarako Laguntzen 2023-2024 kanpainaren esparruan. Lur zulaketa baimendu eta amaitu zen 24,15 hektareatan birpopulazioa egiteko; aipatutako kanpainan diruz lagundu zen, eta baimena eta dirulaguntza eman ziren 24,15 hektarea birpopulatzeko jarraitzeko Basolanetarako Laguntzen 2024-2025 kanpainan.

- Undioko Kontzejua. Ingurumen baimena lortu da 2022ko suteak ukitutako eremuan basoberritzeko. 14,43 ha. Lanak amaitu dira.

Aurrekoaz gain, su hartutako eremua lehengoratzearen esparruan, Baso Administrazioak 2023 eta 2024. urteetan zehar honako jarduketak hauek egin ditu, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuak:

- Iratxetako sutea

- Iratxetako Kontzejuan erretako abere itxituren 5.695 metro kendu eta ordeztu 4.095 metro eraiki ziren, bat etorritik Iratxetan (Leotz) 2022ko ekaineko suteen ondoren baso itxiturak berritzeko jarduketaren proiektuarekin. 47.507,18 € BEZa barne.

- Leireko Mendietako sutea

- Arte zur erreka kentzea Esan eremua artzaintzarako erabiltzeko. 6.500 €

- Irunberrin erretako abere itxiturak ordeztzea. 44.549 €

- Valtierra eta Arguedasko sutea

- Biodibertsitatearen Zerbitzuko Ibai Inguruen Atalak laguntza teknikoko lanen kontratazioa egitea "Valtierra eta Arguedas udal-mugarteetan kokatutako zenbait sakan lehengoratzeko diagnostikoa eta alternatiben proposamena" egite aldera.

- San Martin Unx, Lerga, Eslaba eta Galipentzuko sutea

- "Eslaba, Galipentzu, Lerga, San Martin Unx, Iratxeta eta Irunberri udalerrietan 2022. urtean izandako baso-suteek ukitutako Pinus nigrako pinudien azterlana" kontratatzea, inbertsioaren kostua 13.068 € izanik:

- Erretako abere itxituren 11.533 metro kentzea eta eraikitzea Uxue udal-mugarteetan, bat etorritik 2022ko ekaineko suteek ukitutako itxiturak

Uxue udal-mugarteetan ordeztzeko proiektuarekin. 139.890,46 €

- Erretako abere itxituren 2.977 metro kendu eta berreraikitzea, eta abere itxituren 3.883 metro mantentzea Lerga udal-mugarteetan, bat etorritik Lerga udal-mugarteko baso-suteetan erretako itxiturak kentzeko, indartzeko eta ordeztzeko proiektuarekin. 100.153,90 €

- 2022ko baso-suteak ukitutako San Martin Unxeko herri-basoaren antolamenduaren 1. berrikuspenaren eguneraketa. 18.145,16 €

- "Erretako abere itxituren 11.870 metro kentzea, 7.488 berreraikitzea eta 5.732 metro mantentzea Leotz udal-mugarteetan, bat etorritik 2022ko ekaineko suteek ukitutako itxiturak Leotz udal-mugarteetan ordeztzeko proiektuarekin" 121.186,22 €.

- San Martin Unxen baltsaren inguruko itxitura erreka konpontzea. 2.796,60 €

- Legarda, Gares eta Erreniegako sutea

- Frankotxiki finkan Nafarroako baso ondarearen basoberritzea egiteko proiektua. 34,48 ha. 94.087,04 €, ACCIONAK ordainduak, Nafarroako Gobernuaren eta Acciona Energía Financiación Filiales SA entitatearen artean Nafarroako Foru Komunitatearen titulartasuneko zenbait finkatan basoberritzeak egiteko izenpetutako lankidetzarako hitzarmenaren esparruan.

- Argiñaritz-Girgillaoko Udalean erretako abere itxituren 4.190 metro kendu eta ordeztu 4.415 metro eraikitzea, bat etorritik Argiñaritzen (Girgillao) suteen ondoren itxiturak konpontzeko proiektuarekin. 61.783,59 €

- Garesen sutearen ondoren itxitura kentzea. 27.586,48 €

- Abeltzaintza estentsiboaren bidez suteak prebenitzeko itxitura instalatzeko proiektua Argiñaritzen (Girgillao) 39.442,50 €

- 2022ko ekaineko sutearen osteko itxitura lana Arzotzen (Gesalatz). 17.527,72 €

5. Azkenik, eta ehiza faunaren ikuspuntutik, jarraipena egiteko programa espezifiko bat diseinatu zen, Artaxoako, Puiuko eta Tafallako 2016ko sutearekin praktikan jarritako metodologia erabiltzen duena (sute horrek 3.538 hektareako eremu bati eragin zion guztira). Honetan datza metodologia hori: sutearen ostean populazioak monitorizatzea lehenbiziko urtean eta bigarren urtean zehar, eta, gero, jarraipena egitea sutea izan eta zazpi urte geroago, epe ertaineko erantzuna ebaluatze aldera.

Populazioen monitorizazioa egiteko gaueko ibilbideak egiten dira zenbait espezieetarako, hala nola untxia, erbia, azeria, basurdea, orkatza eta gauaz ateratzen diren gainerako espezieetarako, eta eguneko ibilbideak, berriz, egunaz bizi direnetarako, eperra, esate baterako; entzute puntuak ere badaude beste espezie batzuetarako, hala nola galeperra eta usapala, ugalketa aldian. Halaber, kontaktuak ere erregistratzen ziren, ez soilik ehiza faunarenak, baizik eta faunarenak oro har.


2022ko sute horien jarraipena 2016an Tafalla, Puiu eta Artaxoa inguruan jadanik zegoen informazioarekin integratu ahal izateko, hiru zona hautatu ziren.

- A ikerketa eremua, bat datorrena 2016an ukitutako eremuarekin.

- B ikerketa eremua, bat datorrena 2022an Legardan eta Obanosen hasi zen suteak ukitutako eremuarekin (Legarda, Gares eta Erreniegako sutea).

- C ikerketa eremua, bat datorrena 2022an San Martin Unx udalerrian hasi zen sutearen eremuarekin (San Martin Unx, Lerga, Eslaba eta Galipentzuko sutea),

Emaizak analizatzeko, kontuan hartu ziren nola Nafarroako Gobernuaren langile berekiek egindako laginketak eta GAN-NIK enpresa publikoari Ehizarekin lotutako gaietan laguntzeko enkarguaren esparruan agindutakoak hala barrutietan udan egiten diren gaueko 29 ibilbideak. (Irudia, urdina)



Guztira 28 laginketa egin dira (1. taula):

– 20 laginketa 2016ko sutearen jarraipena egiteko bost urteetan zehar.

– 8 laginketa 2022ko sutearen hasierako afektazioaren analisian.

Balorazioak behin-behinekoak dira, eta, beraz, datozen urteetan jarraipenari eusteak haien interesa eta fidagarritasuna areagotuko ditu.

2016ko eta 2022ko suteen ondorioetako bat izan zen dibertsitate biologikoak behera egin zuela ukitutako eremuetan. Hiru ikerketa eremuetan ondoren egindako hegazti aberastasunaren

monitorizazioak erakusten du zelan errekuperatu den progresiboki.

A ikerketa eremuan hazkundera handiagoa izan zen jarraipenaren lehenbiziko urteetan, eta gaur egun ematen du moteldu egin dela (6. irudia). Litekeena da lehen urteetako hazkundera bizkor horren arrazoia izatea suteek txoko ekologiko berriak sortu izana, bai eta habitat irekiagoetako beste espezie batzuek kolonizatu izana ere (López Zozaya 2011); azkenaldiko moteltzea, berriz, eremuak duen karga ahalmenaren mugaren ondoriozkoa izaten ahal da, nahiz beste faktore batzuen eraginaren ondoriozkoa, eta litekeena da gainerako populaziorako

komunak izatea. B eta C ikerketa eremuetan datozen urteetan jarraipena egiten jarraituz gero, espero modukoa da antzeko kurba ikustea 2022ko suteaz geroztik dibertsitatearen hazkundeari dagokionez.

Zentsu ibilbideen bidezko ehiza espezieen jarraipenak emaitza desparekoak erakusten ditu espezieen eta taldeen arabera (bertako hegaziak, migratzaileak, ugaztunak eta abar). 2016tik 2024ra bitarte egindako bost urteko laginketek aukera ematen dute suteen osteko errekuaratze maila baloratzeke A eremuko ehiza espezieetan, baina oraingoz ez gainerakoetan.

Ematen du untxia eta azeria errekuaratze prozesuan daudela, baina haien populazio mailak oraindik daude urrun inguruko ibilbideetan erregistratutako balioetatik (untxia 0,5 vs. 2 hurrenez hurren, azeria 0,3 vs. 0,5) Nabarmenezkoa da azeriaren errekuarazioa, espero modukoa zena giro aldakor eta antropikoetara egokitzeko gaitasun handia duen orotariko harrapakari espezie bat delako (Díaz-Ruiz & Ferreras 2013).

2016ko sutearen ondoko bi urteetan erbien populazioetan izandako hazkundeak erakusten omen du espazio ireki berriak agertzeak eragin positiboa izan zuela espezie horrengan. Espazio horiek goratzea eta espezie horrentzako gaitasuna galtzea izaten ahal dira emaitza horren arrazoiak (Calzada & Martínez 1994). Edozelan ere, emaitza hori ez da diferentea inguruko barrutietan erregistratutako populazio mailen aldean (0.03 vs. 0.04 hurrenez hurren).

Orkatzari on egin omen dio aurrez, sastraka gehiago zegoenean, ez zeuden soilgune berriak

eta baliabideak agertzeak. Hala ere, egungo populazio mailak oraindik daude inguruko barrutietan erregistratutakoetatik oso urrun (0,03 vs. 0,12 hurrenez hurren).

Pagauso eta eper gorria mantendu egin dira eremu erre guztietan.

Usapal europarraren kasuan, kontaktu berriak erregistratu ziren 2023 eta 2024ko laginketetan (7. irudia). Igoera hori bat dator espezieari jarraipena egiteko lan espezifikotako erregistratutako gorakadarekin (GAN 2024). Halaber, egungo emaitzak oraindik ere urrun daude Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldeak inguruko ibilbideetan lortutako zentsuetatik (2 kontaktu vs. 8 kontaktu Tafalla-Zangoza mugapeko 12. ibilbidean), eta horrek harremana izaten ahal du zuzaitz geruzak espezieak egiten duen habitataren udako erabilera duen garrantziarekin (Gutiérrez Galán A 2016).

Galeperraren kasuan, hain kontaktu gutxi erregistratu dira askotariko lanetan eta azterketa eremuetan, non ezin den ondorioz atera.

Azterketan hizpide diren ehiza espezieak errekuaratzen direnean, baloratzen ahalko da aukerarik dagoen suteen aurreko errekuaratze errolda orokor bat ezartzea, laguntzen duena ukitutako barrutietan ehizatutako ateratzea arautzeko.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 7an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00508. Galdera, Fustiñanako lurzati bateko lixibiatuen balizko iragazteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak Fustiñanako lurzati bateko lixibiatuen balizko iragazteari buruz egingdako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 13ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-24/PES-00508 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Fustiñanako partzela bateko lixibiatuen iragazketa posibleari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

• Ingurumen Departamentuak ba al du horren berri?

Erantzuna: Begiratu dira Fustiñanan gai horren inguruan hasitako espedienteak, eta Zerbitzu honetan ez dago jasota salaketarik jaso denik Fustiñanan egoten ahal diren lixibiatuen iragazketen inguruan deskribatutako egoerari lotuta.

• Hala baldin bada, zer egin da edo zer egitea aztertzen ari da finka horretako lixibiatu-isuriari aurre egiteko?

Erantzuna: Aurreko galderan erantzun denez, ez daukagu deskribatutako egoeraren berri.

• Egin al da ikuskapenik edo azterlan teknikorik eremu horretan ingurumen-inpaktua ebaluatzeko?

Erantzuna: Fustiñanan ez dago azterlan espezifikorik azaldutako gertakarien ingurumen inpaktua ebaluatzeko. Egin izan diren ingurumen ikuskapenek, ez soilik Fustiñanan, baita beste herri batzuetan ere, ingurumen ikuskapeneko urteko programak barnean hartutako ingurumen baimekak dituzten eta 2023-2026 aldirako indarreko ikuskapen planean dauden instalazioei eragiten diete.

• Zer jarraipen eman zaio jabeak Fustiñanako Udalean aurkeztutako kexari?

Erantzuna: z dago jasota inolako komunikaziorik egon denik gai horren inguruan Fustiñanako Udalaren aldetik. Hala ere, etorkizunean egonez gero behar duen arduraz aztertuko dugu.

• Zer neurri hartzen ari da egoerak bertako naturgunean eragina izaten jarraitzea ekiditeko?

Erantzuna: Aurreko galderan erantzun denez, Udalaren komunikazioaren bat jasoz gero, behar diren eginbideei ekinen diegu ahalik arinen, zehazteko afektaziorik dagoen eta zer ekintza gauzatu behar den.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 7an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00509. Galdera, Nafarroako Kontseiluaren 15/2024 irizpenaren balorazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak Nafarroako Kontseiluaren 15/2024 irizpenaren balorazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 13ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako hau: "Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak zer balorazio egiten du Nafarroako Foru Komunitatean Joko eta Apustuen Erregelamendu Orokorren inguruko Foru Dekretuaren proiektua dela-eta Nafarroako Kontseiluak emandako 15/2024 irizpenari buruz?" (11-24/PES-00509). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentua testua eta haren irismena baloratzen ari da une honetan, adingabeen eta kolektibo zaugarrien babesa segurtasun juridiko handiena-

rekin elkartzeko, halako moldez non Jokoari buruzko 21/2022 Foru Legean ezarritakoa betetzen den Nafarroako Foru Komunitatearen eskumen esparruan jokoak eta apustuak antolatzeko, ustiatzeko eta haietan aritzeko araudiari dagokionez.

Nafarroako Joko eta Apustuen Erregelamendu Orokorren foru dekretu-proiektua bi ardatz nagusitan dago oinarrituta. Batetik, adingabeak eta kolektibo zaugarriak babestea, adikzio arriskuak eta ludopatiak murriztuta. Bestetik, neurriak ezartzea esposizio eta adikzio arriskuak murrizteko, eskuragarritasuna txikiagotzeko eta babes faktoreen gainean jarduteko hezkuntzatik eta sensibilizaziotik abiatuta.

Ildo estrategiko horiek testuak oinarri duen ordenamendu juridikoaren oinarria dira aldi berean, hala nola 16/2006 Foru Legea, abenduaren 14koa, 2022an aldatu zena eta bigarren artikuluan helburu gisa finkatzen duena honako hau: "Nafarroako Foru Komunitatean jokoak eta apustuak arautu, antolatu, ustiatu eta egiteko printzipio hauei jarraitu beharko zaie: Hirugarrenei jasan ditzaketan kalteak saihestea, bereziki sektorerik ahulenei, hala nola adingabeei edo laguntzadun desgaituei".

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 3an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: M.^a Amparo López Antelo

11-25/PES-00510. Galdera, Nafarroako Kontseiluaren 15/2024 irizpena behin ezagututa egon litezkeen aldaketei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak Nafarroako Kontseiluaren 15/2024 irizpena behin ezagututa egon litezkeen aldaketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 13ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako hau: "Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuak zer aldaketa proposatuko du Nafarroako Foru Komunitatean Joko eta Apustuen Erregelamendu Orokorren inguruko Foru Dekretuaren proiektua dela-eta Nafarroako Kontseiluak emandako 15/2024 irizpena ezagutu eta gero?" (11-24/PES-00510). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentua testua eta haren irismena aztertzen ari da, adingabeen eta kolektibo zaurgarrien

babesa segurtasun juridiko handienarekin elkar-tzeko.

Ildo horretatik, Nafarroako Joko eta Apustuen Erregelamendu Orokorren foru dekretu-proiektua bi ardatz nagusitan dago oinarrituta, eta arau horren espiritua jasotzen dute:

1. Batetik, adingabeak eta kolektibo zaurgarriak babestea, adikzio arriskuak eta ludopatiak murriztuta.

2. Bestetik, neurriak ezartzea esposizio eta adikzio arriskuak murrizteko, eskuragarritasuna txikiagotzeko eta babes faktoreen gainean jarduteko hezkuntzatik eta sentsibilizaziotik abiatuta.

Ildo estrategiko horiek testuak oinarri duen ordenamendu juridikoaren oinarria dira aldi berean, hala nola 16/2006 Foru Legea, abenduaren 14koa, 2022an aldatu zena eta bigarren artikuluan helburu gisa finkatzen duena honako hau: "Nafarroako Foru Komunitatean jokoak eta apustuak arautu, antolatu, ustiatu eta egiteko printzipio hauei jarraitu beharko zaie: Hirugarrenei jasan ditzaketan kalteak saihestea, bereziki sektorerik ahulenei, hala nola adingabeei edo laguntzadun desgaituei".

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 3an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: M.^a Amparo López Antelo

11-25/PES-00511. Galdera, mugikortasun jasangarriko helburuen jarraipenerako nahitaezko txostenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Oihan Mendo Goñi jaunak mugikortasun jasangarriko helburuen jarraipenerako nahitaezko txostenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 13ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak 11-24/PES-00511 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, mugikortasun jasangarriko hel-

buruen jarraipenerako nahitaezko txostenari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Bai; Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiak egin du, Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legeak agindu bezala, mugikortasun jasangarriko helburuen jarraipenerako txostena.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 3an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00512. Galdera, Nafarroan proiektatuta edo tramitazioan dauden datu-zentroei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Oihan Mendo Goñi jaunak Nafarroan proiektatuta edo tramitazioan dauden datu-zentroei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 13ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroan proiektatuta dauden nahiz izapidetzen ari diren datu zentroei buruz (11-24/PES00512). Hona Nafarroako Gobernu

roako Gobernuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroan ba al da (proiektatuta nahiz tramitazioan) datu-zentroen proiekturik?

• Nafarroan ez dago ez proiektatuta ez tramitazioan datu-zentroen proiektu bat ere.

Hala baldin bada, non daude eta zer enpresa edo administrazioak sustatzen ditu?

• Ez dago erantzuterik. Ikus lehenengo galderari emandako erantzuna.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 3an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-25/PES-00513. Galdera, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legearen betetze mailari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legearen betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 13ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00513), 94/2022 Foru Dekretua indarrean jarri ondoren Nafarroan lagun egiteko animaliak babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legearen betetze- edo ez-betetzemailari buruz, eta honako hauei egin die erreferentzia:

- Lagun egiteko animaliak titulartasun publikoko egoitza-zerbitzuetan
- Departamentu-egitura
- Aurrekontu-partidak eta finantza-nahikotasuna
- Erregelamendu-garapena
- Nafarroako Gobernuaren beste betebeharrak

Galdera horri dagokionez, Nafarroako Gobernuko Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak honako informazio hau ematen dio:

Lehena.- Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea Nafarroako Parlamentuan egindako araua da, eta talde parlamentario bakar baten kontrako botorik gabe onartu da.

Arau horrek lagun egiteko animaliak edukitzeari buruzko betebeharrak eta debekuak ezartzen ditu, animaliak arduraz edukitzen saiatzeko eta animaliak abandonatzea saihesteko. Arauhausteen eta zehapenen araubide espezifiko bat ezartzen da, bai eta eskumen-banaketa bat ere

arlotan, eta horren zatirik handiena toki-erakundeetara dagokie.

Legeak garapen-erregelamendu bat idaztea eskatzen zuen, onarpena benetan eta eraginkortasunez aplikatu ahal izateko, eta horretarako ahalmena eman zitzaien Nafarroako Gobernuari (Bigarren Xedapen Iragankorra). Foru Dekretua onartu arte (2022ko azaroaren 30ean jarri zen indarrean), Legearen aurreikuspen gehienak ezin izan ziren gauzatu, eta hura onartu ondoren hasi ziren gauzatzen. Hala ere, mailaka jarri da abian, jarduera batzuk garatzeko beste batzuk garatu behar baitira aldez aurretik,

eta horregatik ezarri ziren lehentasunak.

Idatzizko galderak 19/2019 Foru Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarrian (lagun egiteko animaliak titulartasun publikoko egoitza-zerbitzuetan), Lehen Xedapen Iragankorrean (Nafarroako Gobernuko departamentuen egiturak eta aurrekontu-partidak egokitzea, eta legeak toki entitateei eta Nafarroako Gobernuari esleitzen dizkien betebeharrak garatzeko eta gauzatzeko finantza-nahikotasuna bermatzea) eta Bigarren Xedapen Iragankorrean (erregelamendu bidezko garapena) islatzen diren puntuak aipatzen ditu, eta, horrez gain, "Nafarroako Gobernuaren beste betebeharrak batzuk" generiko bati buruz galdetzen du, 94/2022 Foru Dekretuaren arabera Nafarroako Gobernuari dagozkion jarduerak praktikan jartzeari buruzkoa dela ulertu behar da.

Aurrekoa zehaztu ondoren, legebiltzarreko galderaren puntu bakoitzari buruzko informazioa eman da.

Bigarrena.- Lagun egiteko animaliak titulartasun publikoko egoitza-zerbitzuetan.

19/2019 Foru Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarriak honako hau xedatzen du: "Nafarroako Gobernuak sustatuko du titulartasun publikoko egoitza-zerbitzu guztietan, beren ezaugarriek zerbitzu horiek horretarako bidea ematen badute, pixkanaka berma dadila lagun egiteko animalia bat daukaten pertsona guztiak beren animaliekin egon ahal daitezela egoitza horietan".

Lagun egiteko animaliak titulartasun publikoko egoitza-zerbitzuetan edukitzea gai konplexua da, eta batzuetan interes kontrajarriak elkartzen dira (lagun egiteko animalien jabe den egoiliarrena eta gainerako egoiliarrena, osasun publikoaren

babesa, eta lagun egiteko animalien babesa, horien ongizatea bermatu behar baita). Horretarako, zentro jakin bakoitzerako banakako ebaluazioa egin behar da. Ebaluazio horrek aukera emanen du, ematen diren instalazio eta zerbitzuen arabera, animaliei jabeekin hainbat modutan laguntzeko (bisitak, gaua igarotzea, terapia lagundua, etab.).

Bestalde, uste da puntu hori animaliak babes-teko Kontsulta Batzordearen arloan landu behar dela; oraindik eratu gabe dago batzorde hori (arrazoiak Barruko Larrialdietarako Planean (11-24/00944) azalduta).

Azkenik, 94/2022 Foru Dekretua indarrean sartzearen ondorioz Lagun Egiteko eta Esperimentaziorako Animalien Atalean gauzatzen ari den jarduera-bolumen handia dela eta, orain arte ezin izan da Foru Administrazioiko organo eskudunei lehen planteamendua egiteko aukera emanen dien jarduerarik hasi, beste jarduera batzuk lehenetsu-nezkoak direlako. Horrek ez du esan nahi zentroek unean uneko eskaerei erantzun ezin dietenik.

Hirugarrena.- Departamentu-egitura.

19/2019 Foru Legearen Lehenengo Xedapen Iragankorrek dio: "Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak bere departamentu-egiturak eta aurrekontu-partidak egokituko ditu foru lege honetan xedatutakoa eraginkortasunez betetzeko".

19/2019 Foru Legea Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera sartu zen indarrean, hau da, 2019ko uztailaren 11n. Hilabete berean, gobernu-aldaketa egon zen hauteskunde autonomiko eta lokalen ondorioz, eta urriaren 15eko 258/2019 Foru Dekretua eman zen, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren egitura organikoa onartzen duena. Horren bidez, Animalien Ongizatearen Atal berri bat sortu zen (gaur egun Lagun Egiteko eta Esperimentaziorako Animalien Atala esaten zaio), Abeltzaintza Zerbitzuaren mendekoa. Haren eremu materiala, besteak beste, honako hau da: "lagun egiteko animalien ongizatea eta babesa, lagun egiteko animalien zentroen kontrola, lagun egiteko animalien erregistroa, identifikazioa eta osasun-kontrola, animaliak babesteko eta defendatzeko elkartekiko harremanak, Nafarroako Gobernuaren animaliak biltzeko zentroaren kudeaketa, animalien babesaren arloko hezkuntza-, dibulgazio- eta sustapenkanpainak, bai eta indarrean dauden edo haren barruan agintzen zaizkion xedapenek esleitzen dizkioten beste guztiak ere.

Hori izan zen Foru Legean jasotako neurriak martxan jartzea ahalbidetuko zuen egitura sortzeko lehen urratsa.

Atalak, gainera, Lagun egiteko Animalien Bulegoa du. Ataleko eta Bulegoko Burutzak albaitari funtzionarioek hartu zituzten hasiera-hasieratik.

Ondoren, martxoaren 4ko 22/2020 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatu zen, eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritza Nagusiari atxikitako plaza hauek sortu ziren:

- Administrazio Publikoko teknikari lanpostu huts 1 (adarra: juridikoa), funtzionario-erregimenekoa
- 2 albaitari lanpostu huts, funtzionario-erregimenekoa
- Administrari lanpostu huts 1, funtzionario-erregimenekoa

Lanpostu hutsak sortu ondoren, COVIDak ezohiko egoera sortu zuen, eta horrek atzeratu egin zuen langileak departamentuan sartzea, 2020ko ekainaren amaieratik urte bereko azarora bitartean.

Gaur egun, indarrean dagoen plantilla organikoarekin bat etorritik (70/2024 Foru Agindua, azararen 8koa, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariarena, Foru Administrazioaren plantilla organikoa argitaratzea xedatzen duena), Lagun Egiteko Animalien eta Esperimentazioko Atalak honako langile hauek ditu lagun egiteko animaliak babesteko eta saiakuntzak egiteko:

- Atalburu 1
- Lagun Egiteko Animalien Bulegoko burutza 1 TAP (adar juridikoa)
- Albaitari profesional 1, esperimentazioko animaliei dedikazio eskusiboa eskaintzen diena
- Lagun egiteko animaliei dedikazio eskusiboa eskaintzen dieten 2 albaitari profesional
- Administrazio-langile 1

Laugarrena.- Aurrekontu partidak eta finantza nahikotasuna.

19/2019 Foru Legearen lehen xedapen iragan-korrek honako hau xedatzen du: "Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak bere departamentu-egiturak eta aurrekontu-partidak egokituko ditu foru lege honetan xedatutakoa eraginkortasunez betetzeko. Nafarroako Aurrekontu Orokorretan bermatuko da behar adina finantza-baliabide badaudela foru lege honek toki entitateei eta Nafarroako Gobernuari esleitzen dizkien betebeharrak garatu eta betearazteko". Aurrekontu partidei dagokienez, urtero onartu dira Lagun Egiteko Animalien Atalari dagozkion jarduerak barne hartzen dituzten aurrekontuak, horien

artean honako hauek (aurrekontu-datuak kontsulta daitezke Nafarroako Gobernuaren Gardentasunaren atarian (<https://www.navarra.es/eu/nafarroako-gobernua/aurrekontuak>):

1. Toki-erakundeentzako laguntza-lerroa, animaliak babesteko ekintzetan

2. Animaliak babesteko erakunde laguntzaile gisa aitortutako elkarteentzako laguntza-lerroa, animalien babesaren arloko jardueretarako.

3. Nafarroako Gobernuaren Animaliak Babesteko Zentroaren kudeaketa

4. Nafarroako Gobernuaren Animaliak Babesteko Zentroaren instalazioak mantentzea eta hobetzea

5. Arduraz edukitzeari buruzko kontrol-, sentsibilizazio- eta sustapen-kanpainak

Finantza-nahikotasunari dagokionez, hau da, Legeak esleitutako eskumenak betetzeko behar adina funts edukitzeari dagokionez, Foru Legeak ezartzen dituen neurriak arian-arian ezarri behar zirenez, aurrekontuak garapen horri dagokion errealitate faktikora egokituz joan dira.

Bosgarrena.- Garapen-araua.

19/2019 Lege Foralaren Bigarren Xedapen Iragankorrek dio: "Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege honen erregelamenduzko garapena egiteko; foru legeak indarra hartzen duenetik urtebeteko epean egin beharko da garapen hori".

Erregelamendu bidezko garapena azaroaren 26ko 94/2022 Foru Dekretua onartzearekin batera egin zen. Foru Dekretu hori 2022ko azaroaren 29ko NAO n argitaratu zen, eta hil bereko 30ean sartu zen indarrean.

Onarpenaren atzerapena hainbat faktorek eragin zuten: 2019ko ekainean egindako hauteskundeek prozesua hasteko nahikoa atzerapen ekarri zuten departamentuaren egituraren sorreran. Lantzeko prozesua luzea izan zen, eta inplikaturako eragile eta erakunde guztiek parte hartu zuten (albaitariaren elkargoa, lagun egiteko animaliak babesteko elkarteak, ehiza-elkarteak, tokiko erakundeak, talde politikoak, etab.). Prozesua eten eta zaildu egin zen COVIDaren ondorioz, bilera dinamikoak

egitea edo eztabaidarako foro zabalagoa izatea eragotzi baitzuen.

Azkenik, 2021. urtearen amaieran, lagun egiteko animalien babesa arautzen duen Estatuko Lege bat zegoen proiektuan, eta bazirudien laster onartuko zela. Horrek zalantzan jarri zuen gara-

pen-erregelamendua egiten jarraitzea, Estatuko lege berriak foru legearentzat izan zitzakeen ondorioengatik (eta halaxe jaso zuen Nafarroako Kontseiluak Foru Dekretuaren proiektuari buruz emandako irizpenean). Hala ere, azkenean tramitazioarekin jarraitzea erabaki zen, foru legea idatzita zegoen terminoak ikusita, garapenik ezak ia aplikaezin uzten baitzuen.

Seigarrena.- Nafarroako Gobernuaren beste betebeharrak.

19/2019 Foru Legea garatzeko erregelamendua onartzen duen 94/2022 Foru Dekretua onartu eta indarrean jarri ondoren, honako jarduketa hauek egin dira: erregistro berriak sortzea, baimeen eta erregistroetako inskripzioen izapidetze telematikoko prozesuak egitea, toki-erakundeei aholkularitza ematea beren eskumenak gauzatzeko, lagun egiteko animaliak babesteko zentroa kontrolatzea, laguntzen deialdia eta kudeaketa, 19/2019 Legea hausteagatik jarritako salaketak kontrolatzea eta zaintzea, lagun egiteko animalien zentro publikoak ezartzeko azterketa, hiriko hegaztiak eta katu-koloniak kontrolatzeko aholkularitza, etab.

Zehazki, erregistro hauek jarri dira martxan:

1. Nafarroako Lagun Egiteko Animalien Identifikazio Erregistroa, datuak irauli eta araztea, Erregistroa kudeatzeko hitzarmenak, sarbideen kudeaketa, eta abar. <https://riacna.es/>, <https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/lagun-egiteko-animaliak-identifikatzeko-erregistroa>

2. Etxeko animaliak identifikatzeko albaitariak gaitzea. Gaikuntza-prozedura, web-tramitazioa, jarduketa-protokoloak <https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/albaitariak-gaitzeko-eskaera-lagun-egiteko-animaliak-modu-ofizialean-identifika-ditzaten>

3. Etxeko animalien zentroen erregistroa: erregistroa sortzea. Baimentzeko eta erregistratzeko prozedura, zentroen ikuskapenak eta kontrola, eskatzaile eta udal berrientzako aholkularitza eta informazioa, izapidetze telematikoa. Dokumentuak eta informazioa lantzea.

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/autorizacion-y-registro-de-centros-de-animales-de-compania>

4. Nafarroako txakur-trebatzaileen erregistroa: erregistroa sortzea. Prozedura, izapidetze telematikoa, interesdunei aholkularitza ematea, erregistroa mantentzea, <https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/zakur-trebatzaileen-erregistroa>

5. Animaliak Babesteko Elkarteen Erregistroa eta Elkartek erakunde laguntzaile gisa aitortzea: erregistroa sortzea eta mantentzea, prozedura izapidetza, izapidetze telematikoa, interesdunei aholkuak ematea, etab. <https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/animaliak-babesteko-eta-defendatzeko-elkarteen-eta-erakunde-laguntzaileen-erregistroa>

6. Arau-hausleen erregistroa: erregistroa sortzea eta mantentzea.

Baimenak abiarazteaz eta kudeatzeaz eta erregistro horiek mantentzeaz gain, beste jarduera asko ere Atalari dagozkio, eta honako hauek egiten dira:

- Baimenak kudeatzea: animaliekin filmatzea, pertsona juridikoa edukitzea, animaliak hiltzea, eta abar.

- Prestakuntza (udaltzainak, foralak, guardia zibila).

- Edukitze arduratsuari buruzko sustapena eta kanpainak.

- 19/2019 Foru Legearen arau-hausteengatiko salaketen jarraipena (zehatzeko eskumena udalarena da, nahiz eta Nafarroako Gobernuak subsi-

diarioki balia dezakeen bitartekorik ez dagoela egiaztatuz gero, hainbat aldiz gertatu den bezala).

- Toki-erakundeei aholkularitza ematea beren eskumenak gauzatzean.

- Lagun egiteko animalien mantentze-lanetarako zentro publikoen sarea Nafarroan ezartzeko azterlan bat egitea: NUKFri aurkeztea, elkarrekin lantzeko.

- Toki-erakundeentzako eta erakunde laguntzaileentzako dirulaguntzen eta laguntzen lerroa: laguntzen kudeaketa.

Egiteke dauden jarduerari dagokienez, beharrezkoa da Animaliak Babesteko Kontsulta Batzordea eta Erakunde Prestatzaileen Erregistroa abian jartzea eta prestakuntza-ikastaroak egiaztatzea. Gai horiek 2025eko ekitaldian adostuko dira.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 27an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00514. Galdera, metilfenidatoaren hornidura-ezaren arrazoiei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak metilfenidatoaren hornidura-ezaren arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 13ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako informazio hau eskatzeko: "Metilfenidato medikamentuari dagokionez, zeri zor zaio medikamentu horren hornidura-eza Nafarroan eta zer aurreikuspen darabilzue horren hornidura dela-eta?" (11-24/PES-00514). Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Metilfenidatoaren hornidurarik eza maila nazionalakoa da, eta, horren harira, Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (AEMPS) bi informazio ohar eman ditu jadanik. Ez da soilik Nafarroan dagoen hornidurarik eza.

Lehenengo oharra AEMPSak 2024ko urriaren 30ean eman zuen <https://www.aemps.gob.es/informa/la-aemps-informa-de-problema-de-suministro-de-medicamentos-con-metilfenidato-como-principio-activo/>

Ohar horretan adierazten denez, medikamentu horiek hornitzeko arazoa dago nagusiki eskaria espero zena baino gehiago areagotu delako, eta aurreikusten da arazo horiek 2025eko lehenengo hiruhilekoan zehar konponduko direla. Hala ere, egoera abendutik aurrera hasiko da berroneratzen.

Oharrean adierazten da, halaber, hornitzeko arazoak hainbat faktoreren ondoriozkoak direla, horien artean fabrikazio instalazioetako gaitasun arazoak eta eskari globala aurreikusitakoa baino

gehiago areagotu izana. Horren arrazoi nagusia da diagnostiko gehiago egon direla, eta, horrez gain, arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua (ADHN) tratatzeko beste medikamentu batzuen horniduran arazoak egoteak ere larriagotu du. Mundo osoan era badaude arazoak metilfenidato printzipioa aktiboaren eta medikamentuak fabrikatzeko beste material batzuen eskuragarritasunarekin, eta, horren ondorioz, medikamentu horien fabrikazioa atzeratu egiten da.

Eskuragarritasun arazo horien ondorioak gehien pairatzen dituzten medikamentuak askapen luzeko konprimatuak dira, eta askapen aldatuko konprimatu eta kapsulek, berriz, hornidura egonkorra dute.

Bigarren oharra AEMPSak 2024ko azaroaren 28an eman zuen <https://www.aemps.gob.es/informa/recomendaciones-de-prescripcion-de-la-aemps-ante-los-problemas-de-suministro-de-medicamentos-que-contienen-como-principio-activo-metilfenidato-en-forma-de-comprimidos-de-liberacion-prolongada/>

Ohar horretan adierazten da askapen luzeko konprimatu horietako dosi guztien unitate nahikoa dagoela epe laburrean bermatzeko tratamenduak mantentzen ahal direla, baina datozen hilabeteetan unitateak jasotzeko aurreikuspenek konprometitu egiten dute tratamendu berriak has-tea formulazio horrekin. Oharrean adierazten da tratamendu berriak berehalako askapeneko konprimatuekin has daitezela, edo askapen aldatuko kapsulekin.

Egoera eguneratzeko xedez, galdera egin zitzaion AEMPSaren zuzendariari, eta, abenduaren 12an erantzun zuenez, "ez dago ezer berririk oharretan azaldutakoaz gain".

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko abenduaren 19an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00515. Galdera, metilfenidatoaren hornidura-eza ekiditeko neurriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak metilfenidatoaren hornidura-eza ekiditeko neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 13ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

El Consejero del Departamento de Salud del Gobierno de Navarra, en relación con la pregunta para su contestación por escrito formulada por la Parlamentaria Foral Ilma. Sra. D^a Leticia San Martín Rodríguez, adscrita al Grupo Parlamentario Unión del Pueblo Navarro (UPN), en la que solicita en relación al fármaco Metilfenidato, ¿qué acciones se han llevado a cabo para evitar su desabastecimiento en Navarra? (11-24/PES-00515)

Actuaciones de la Subdirección de Farmacia y Prestaciones respecto a los problemas de suministro de metilfenidato

Desde octubre de 2024 se está produciendo a nivel europeo problemas de suministro de metilfenidato, medicamento indicado para el trastorno por déficit de atención e hiperactividad (TDAH). Algunas presentaciones de metilfenidato de liberación modificada están desabastecidas al tiempo que están disponibles otras con una diferente cinética de liberación de principio activo por lo que su intercambio debe ser cuidadoso y bajo criterio médico.

La situación es muy cambiante: algunas presentaciones se van desabasteciendo y hay suministro limitado de otras. Desde la Subdirección de Farmacia y Prestaciones del Servicio Navarro de Salud-Osasunbidea (SNS-O) se han realizado actuaciones para paliar el problema:

18 de octubre de 2024: el Servicio de Asesoría e Información del Medicamento contacta con la Gerencia de Salud Mental y específicamente con el Centro de Salud Mental Infanto-Juvenil para

elaborar una guía de posibles intercambios entre presentaciones de metilfenidato.

23 de octubre de 2024: desde el Servicio de Asesoría e Información del Medicamento se envía la nota con la guía de intercambio a médicos de familia, pediatras de atención primaria y psiquiatras del SNS-O (Anexo 1).

30 de octubre de 2024: la Agencia Española de Medicamentos y Productos Sanitario (AEMPS) informa de problema de suministro de medicamentos con metilfenidato como principio activo y de que está en contacto con sociedades científicas para elaborar recomendaciones sobre los cambios entre los distintos medicamentos.

5 de noviembre de 2024: la AEMPS autoriza que se solicite una de las presentaciones desabastecidas, el metilfenidato 18 mg (liberación 22-78 %), como medicamento extranjero. Desde el Servicio de Farmacia Sociosanitario, dependiente del Servicio de Gestión de la Prestación Farmacéutica, se solicitan 150 envases.

7 de noviembre de 2024: el Servicio de Farmacia Sociosanitario recibe 50 envases de metilfenidato 18 mg (liberación 22-78 %) extranjero. Se ponen inmediatamente a disposición para que puedan ser dispensados a través del canal de oficinas de farmacia sin necesidad de que el médico prescriptor tenga que realizar ninguna actuación.

13 de noviembre de 2024: la Subdirección de Farmacia y Prestaciones elimina, mientras dure el problema, el criterio de respuesta inadecuada al tratamiento previo con metilfenidato para el visado de inspección de la lisdexanfetamina, otro medicamento indicado para el TDAH. Se facilita así su uso como alternativa.

14 de noviembre de 2024: ante el desabastecimiento de más presentaciones, se vuelve a mandar la guía actualizada en coordinación con la Gerencia de Salud Mental para incluir más posibles intercambios. (Anexo 2)

28 de noviembre de 2024: la AEMPS emite sus recomendaciones de prescripción ante los problemas de suministro de medicamentos que contienen como principio activo metilfenidato en forma de comprimidos de liberación prolongada que incluye una guía de posibles intercambios. Desde el Servicio de Asesoría e Información del Medicamento se envían a todos los médicos de

familia, pediatras de atención primaria y psiquiatras del SNS-O.

12 de diciembre de 2024: el Servicio de Farmacia Sociosanitario recibe 100 envases de metilfenidato 18 mg (liberación 22-78 %) extranjero para su dispensación a través del canal de oficinas de farmacia.

Es cuanto informo en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 215 del Reglamento del Parlamento de Navarra.

Iruñean, 2024ko abenduaren 26an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00516. Galdera, bi urteko geletako proba pilotuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak bi urteko geletako proba pilotuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko abenduaren 13ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-24-PES-00516 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Aurkeztutako galderei dagokienez, eta erantzunak emate aldera planteatu diren ordenari jarraikiz:

Esperientzia pilotu gisa bi urteko ikasgeletan egindako haur hezitzaileen ordezkapenak, egoki denean, Hezkuntza Departamentuaren mende dauden haur-hezkuntzako lehen zikloko gainerako ikastetxeetan ordezkapenak egiteko erabiltzen diren irizpide berberekin eta modu berean egiten dira.

Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioan lan egiten dutenen egutegia eta lanaldia onesten duen araudiak ez du barnean hartzen langile horiek non eta noiz jan behar duten zehazteko erreferentziarik. Beraz, Hezkuntza Departamentuak ez du zehazten hezitzaileek noiz eta non jaten duten.

2024-2025 ikasturteko egutegia eta ordutegia prestatzeko Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetarako jarraibide batzuk onesten dituen Hezkuntzako zuzendari nagusia apirilaren 12ko 117/2024 Ebazpenean

adierazten denez, entitate titullarrak ezarriko du ikastetxearen eguneroko irekitzeko eta ixteko ordutegia, bai eta askotariko unetan sartzeko eta ateratzeko ordu tarteak ere. Horrenbestez, ikastetxeko zuzendaritzak erabakitzen du zein den ikasgela horietan sartzeko eta ateratzeko ordutegia, eta ordutegi hori Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak onetsi du.

Haurren elikatzeko, higieneko eta lo egiteko erritmoak eguneroko lanaldia antolatzeko ardatza izan behar dira. Antolaketa horrek, noski, aintzat hartu behar ditu ere bai erabilgarri dauden espazioak.

Ikasgela horiek ezartzeko erreferentziazat hartu dira martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuan finkatutako betekizun fisikoak. Foru dekretu horrek Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen du eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak ezartzen ditu.

Hezkuntza Departamentuak mihiseria unitate nahikoa eman die ikastetxeei etenik gabe erabili ahal izateko, eta familien ardura da ikastetxeak ezartzen duen maiztasunarekin garbitzea.

Ikasgela horietako neska-mutilak ikastetxeko ikasleak dira, eta, hortaz, bertako hezkuntza-orientazioko langileek ematen diete arreta.

Esperientzia etengabe ari da ebaluatzen. Horrez gainera, jadanik bilera zehatzak egin dira ebaluazio partzialetarako, nola haur hezitzaileekin hala ikastetxeetako zuzendaritzekin. Esperientziaren azken balorazioa ikasturtean zehar egiten da, kontuan hartuta zuzendaritza taldeen, hezitzaileen eta familien ekarpenak.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 7an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

